009 ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

1. artikulua.

Eranskineko tarifetan zehazten diren jarduerak burutu edo zerbitzuak eskaintzeagatiko prezio publikoak ezarri eta ordainaraziko dira, Ordenantza honetako arauei jarraituz, haiek hauen barne direlarik.

2. artikulua.

Ordenantza udalerri guztian ezarriko da.

3. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, zerbitzu edo jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

4. artikulua.

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoengatiko tarifak, Eranskinean datozenak dira.

5. artikulua.

Ordainarazi daitezkeen diru kopuruak, eskatu edota buruturiko zerbitzu edo jarduera bakoitzeko pagatuko dira eta dagokien epigrafeetan bakoitzarentzat adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

6. artikulua.

Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak burutzeko, aldez aurretik eskatu beharko zaio Udal Administrazioari horiek eskaini edo burutzeko baimena. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolanahi ere, Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaintzen badira hartuko dira emandakotzat, eta hauen epea luzatu ondoren prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua eskaintzeko edo jarduera burutzeko aukera galaraziko da automatikoki.

7. artikulua.

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzua eskaintzen edo jarduera burutzen hasten denean sortzen da.

Hala ere, zerbitzuen eskaintzea edo jardueren burutzea dagoeneko onetsi eta luzatu bada, zerga ordaindu beharra, dagokien tarifetan adierazitako denboraldi natural bakoitzaren aurreneko egunean sortzen da.

8. artikulua.

Prezio publikoa honela ordainduko da:

a) Zerbitzu eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, udal kutxetan zuzenean gordailu bat sartuz, zerbitzua eskaini edo jarduera burutu aurretik, adierazitako gutxieneko kopuruz.

b) Beren izaeragatik aldez aurreko gordailua jartzeko aukera ematen ez duten zerbitzu-eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean.

c) Urtez urteko zerbitzu-eskaintzek edo jarduera-burutzapenen kasuan, horiek prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera.

9. artikulua.

Prezio publikoa ordaindu beharrekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik jarduera burutzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

10. artikulua.

Prezio publiko hauengatiko zorrak premiamenduzko prozedura administratiboa erabiliz ordainarazi ahal izango dira.

11. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen den Prezio Publikoaren kitapen, bilketa eta ikuskatzeari dagokion guztian, Zergekiko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa erabiliko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batean, honetan adierazten den egunean onetsi zen behin-betikoz, eta 2025eko Urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta bere aldaketa edo derogazioa erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

009.01.-ERANSKINA I

01. IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK

URTEROKO ZIKLOAK	
	€
Haurrak	3,50
Helduak	8,00
Helduak bonoa (hiru saio)	20,00
ZINEA	
	€
Haurrak	3,00
Helduak	4,50
Ikuslearen eguna	3,00
EMANALDI BEREZIAK	
	€
Emanaldi tipo A sarrerak	10,00
Emanaldi tipo B sarrerak	15,00
Emanaldi tipo C sarrerak	5,00

02. HAUR ESKOLAKO JANGELA 2024/2025. IKASTURTEKO TARIFAK

	€
Bazkariaren tarifa, haurra eta hileko	81,30
Askariaren tarifa, haurra eta hileko	18,35
Bazkari bakoitzak, haurra	5,00
Askari bakoitzak, haurra	1,55
Bazkariaren tarifa, hezitzailea eta hileko	105,30
Bazkari bakoitzak, hezitzailea	6,05

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1.- Zerbitzua eskatzen duena da prezio publiko hau ordaintzera beharturik dagoena.
2.- Zerbitzua ikasturte osoan (irailetik uztailera) erabiltzen duten onuradunek hamaika ordainketa oso egin beharko dituzte, eta ordaindu beharreko kopurua diru-sarreren taula aplikatzearen ondorioz kalkulatuko da. Ordainketak hilerokoak izango dira, zerbitzua emateko urtero onartzen den eskola egutegiaren arabera.
Salbuespena: jangelari utzi beharra dakarren ezinbesteko arrazoia, eta behar bezala justifikatua denean, Udalak erabakiko du. Oporretan egotea ez da ezinbesteko arrazoia. Hilabetea hasi baino lehen jakinarazi eta justifikatu beharko da.
3.- Edozein aldaketa (jangela zerbitzua eskatu, ordutegia aldatu, baja eman) idatziz egin beharko da, udaletxeak horretarako dituen eskabide orriak beteaz eta behar bezala justifikatuaz. Aldaketa hauek eskatzeko azken eguna hilabete bakoitzaren 25a izango da.
4.- Egokitzapenen kasuan, egokitzapena 2 astekoa denez, epe hori ez da ordainaraziko. Epe hori bukatu ondoren denei zerbitzua ordaintzeko eskatuko zaie.
5.Jangelako kuotak, bai umeenak bai helduenak ere, murriztu ahal izangodira lan arazoak baldin badaude edo haurra gaixotzen bada.Horretarako medikuak betetako mediku-orria entregatu beharko da. Orrihauetariko bakoitzak aste baterako soilik balio du eta, beraz, haurragaixo dagoen aste bakoitzeko orri bat entregatu beharko da.Murrizpena % 25ekoa izango da haurra gutxienez 5 egun jangela erabiligabe egon bada. % 50ekoa, bi astez joan ez bada eta % 75ekoa hiruastez joan ez bada. Medikuaren ziurtagiri hauek hurrengo hilabeteabukatu aurretik aurkeztu beharko dira, hilabete bakoitzaren 30a bainolehen. Behin data hori pasatzean, ez da murrizpena aplikatuko.
6.- Tarifa ordaintzeko, plaza eskatzerakoan ezinbestez eman behar da kontu korrontearen zenbakia, eta zenbaki horren bitartez udaleko zerbitzu ekonomikoek dagokion tarifa kobratuko dute.
7.- Jangela erabiltzeko zerbitzuaren eskaera, ordutegiaren aldaketa eta jangelan baja ematea, Udaletxean egin beharreko tramiteak dira, Hezkuntza Departamentuan edo Herritarren Harrera Zerbitzuan (hhz). Berdin, medikuaren agiriak entregatzea ere.
8.- Tarifak %50ean murriztuko dira jangela bi senidek batera erabiltzen badute. Hiruk batera erabiltzen badute, berriz, hirugarren honengatik ez da inolako tarifarik ordaindu beharko.
9.-0-1 urteko gelan, haurrak 7 hilabete betetzen dituen hilabetean hasiko dira aplikatzen tarifak.
10. Tarifa murrizketak : Bizikidetza unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

03. HAUR ESKOLAKO JANGELA 2024/2025. TARIFA MURRIZPENAK

Bizikidetza unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.	

<u>Murrizpenak aplikatzeko baldintzak:</u>
1.- Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea.
2.- Prezio publikoaren subjektu pasiboak, haur eskola zerbitzuaren haur onuradunen guraso, tutore edo legezko ordezkariak, Hernanin erroldatuak egotea.
3.- Aurkeztu beharreko agiriak:
3.1 Eskaera orria eta bizikidetza unitateko kide guztien diru-sarrera eta ondasunen zinpeko aitorpena.

3.2 Familia unitatearen diru-sarreren frogagiriak:
a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko azken ekitaldiko zerga-aitorpenaren fotokopia edo, aitorpenik egin beharrik ez bada, Foru Ogasunaren egiaztagiria, (errenta informazioa, errenta laburpena)
b) Errenta aitorpena egin beharrik ez bada, enpresaren ziurtagiria (10-T), edota langabeziagatik edo bestelako kontzeptuengatik jasotzen diren prestazioen ziurtagiriak
c) Ekonomia jardueretatik datozen diru-sarreren kasuan, errenta aitorpenarekin batera dagokion eranskina aurkeztu behar da (PFEZaren 109 inprimakia, 6 edo 5 zk.), jarduera etekinak zehazten dituena, eta ondarearen eranskina ere bai (PFEZaren 109 inprimakia, 7 zk).
d) Interesgarri jotako beste edozein agiri.
Tarifaren gaineko murrizpena aplikatze aldera PFEZaren aitorpena edo, INSS eta INEMeko datuak ohartaraziz, diru-sarrerak egiaztatzeko bestelako agiririk aurkezten ez duten interesatuek ez dute inongo murrizpenik izango.
4.- Langile autonomoei, diru-sarreren arabera tarifaren zein murrizpena aplikatu behar zaien kalkulatzeko, gutxieneko diru-sarrera maila bat errekonozituko zaie, 22.197,92 € eta 26.617,12 €-ko tarteari dagokiona izan daitekeena.
5.- Ezingo dute murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:
a) Ondasun higiezinak:
Elkarbizitza edo familia unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 160.056,06 €-ko muga. Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 176.061,86 €-ko muga. Ondare balio hau kontuan hartu behar bada bakarrik aplikatuko da artikulu honen 2c) apartatuak ezarritako hobaria, hau da, familia ugarientzako hobariak eta diru-sarreren taula.
Familia unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:
1.Ondasunak badira ohiko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garaje bat edota trasteleku bat, edo etxebizitzatik hurbil dagoen garaje edota trasteleku bakarra.
2.Ondasunak badira ohiko etxebizitza (garaje eta trasteleku bana) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.
Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomoa bada eta ekonomia jardueren gaineko zergan horrela alta emanda baldin badauka, ez da kontuan hartuko lokal hori.
3. Ondasunak bi etxebizitza badira, bata ohikoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 160.056,06 €-ko muga gainditzen ez bada, edota 176.061,86 €-koa familia ugarien kasuan, ez da kontuan hartuko bigarren etxebizitza.
b) Ondare higigarriak:
Ibilgailuak:
1.- Famili unitatearen kide bakar bat ere ezin da izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.
Hauek ez dira kontuan hartuko:
- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- %65eko edo gehiagoko minusbalitasun maila duten pertsonek gidatzeko egokitutako ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.
- Desgaitasuna duten pertsonak gurpil-aulkian garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.
2.- Dena den, famili unitateak ezin du ibilgailu baten baino gehiagoren jabe izan, aurreko idatz zatian sartutakoak barne. Hala ere, ez dira kontuan hartuko kamioiak, traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak.
6.- Ondare-osagaien pilaketa.
Familia unitateak aurreko ataletan azaldutako ondare-osagai horietatik hainbat dituenean, dagokion mugarekiko ondare-osagai bakoitzaren balioak hartzen duen ehunekoa kalkulatuko da.
Horrenbestez, eskatutako salbuespen, hobari edo murrizpena ez da emango ehuneko horien batura ehun baino gehiago bada.
7. Murrizpenak aplikatzeko momentuan, irizpideak eta salbuespenak ,eranskin honetan ez badaude espreski jasota, aplikagarria izango da zerbitzuak publikoak emateagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskalaren 7. artikulua (onura fiskalak arautzen dituen artikulua).

04. JABEKUNTZA ESKOLA. PRESTAKUNTZA 2024/2025 IKASTAROAK

	€
Ordu bat	1,00

TASA KUDEATZEKO ARAUAK
Matrikularen ordainketa matrikula egiteko epealdian egingo da, Udalaren Kontu Korrontean.